

## Ostiralean jasoko dituzte laugarren mailako ikasleek orlak Arrasateko Amaia antzokian egingo den ekitaldian

2015/06/01

Ekainaren 5ean, ostiralarekin, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko laugarren mailako ikasleek graduetako bukaera ekitaldia egingo dute Arrasaten. Ekitaldia Amaia antzokian egingo da, 18:00etan hasiko da.

Aurten, **186 ikaslek jasoko dute ikasketa bukaerako orla**. Horietatik 95 izango dira Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak, 71 Haur Hezkuntzakoak eta, azkenik, 20 Ikus-entzunezko Komunikazio graduakoak.

Arrasaten egingo den ekitaldira, guztira, **700 lagun** hurbilduko dira. Orla banaketa ekitaldira gonbidatuak izan dira aurten gradua bukatuko dituzten ikasleak, irakasleak eta ikasle horien senide eta lagunak. Ekitaldia bukatuko da Uharkape pilotalekuan egingo den luntxarekin.

### EGITARUA

- **Begoña Pedrosa** Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoren agurra.
- **Mariam Bilbatua** Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslearen hitzaldia.
- **Orla banaketa**.
- **Bixente Atxa** MONDRAGON UNIBERTSITATEko errektorearen hitzak.
- **Eneko Balerdi eta Beñat Raiaren** dantza ikuskizuna.
- **Luntxa** aldameneko Uarkape pilotalekuan.



Arratsaldeko 18:00etan hasiko da diploma banaketa ekitaldia